



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

### LEHENDAKARITZAREN

### EBAZPENA

15/01

#### Hornitzaileek Debagoieneko Mankomunitateari egiten dizkieten faktura elektronikokoak jasotzeko prozedura arautzeari buruzkoa.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzekoak, fakturen kontabilitate erregistroa sortu du, prozedura ezarri du faktura horiek herri administrazioetan tramitzeko, eta baita organo eskudunen segimendu-jarduketak ere. Lege honek oinarrizko izaera du, horren ondorioz, herri administrazio guztiei, toki entitateak barne, aplikatu beharrekoa da.

2. artikulua jasotzen du legea aplikatuko zaiela herri administrazioen eta ondasun eta zerbitzu hornitzaileen arteko harreman juridikoen esparruan egiten diren fakturei. Legearen ondorioetarako, herri administrazioetat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartuak, 3.2 artikuluan aipatzen dituen ente, organismo eta erakundeak.

Era berean, 4. artikulua dio herri administrazioari ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta igorri ahal izango dutela. Bertan, zehazten da zein entitate mota dagoen behartua faktura elektronikoa erabiltzera eta hura dagokion sarrera-puntu orokor batean aurkeztera. Artikulu berak aukera ematen du baita ere obligazio horregatik kanpo uzteko, erregelamendu bidez, 5.000 eurokoak baino handiagoak ez diren fakturak.

Horrez gain, 6. eta 8. artikuluek, hurrenez hurren, arautzen dituzte faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren eta fakturen kontabilitate erregistroak edukitzeko betebeharra.

Legean ezarritakoa gauzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduaren bitartez arautzen ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk. Zehazki, 4. artikuluan jasotzen da Gipuzkoako toki entitateak, eta haiei lotutako edo haien mende dauden entitate edo organismoak, atxiki ahal izango zaizkiola Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari.

Hori guztiatik, beharrezkoa da hornitzaileek Debagoieneko Mankomunitateari egiten dizkieten faktura elektronikokoak jasotzeko prozedura arautzea.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT

#### **Lehena. Xedea.**

Dekretu honen xedea da hornitzaileek Debagoieneko Mankomunitateari egiten dizkieten faktura elektronikokoak jasotzeko prozedura arautzea.

**Bigarrena. Eremu subjektiboa.**

Dekretu honetan xedatutakoa aplikagarria izango zaie Mankomunitateari eta bere sail denei zuzendutako faktura elektronikoko guztiei.

**Hirugarrena. Eremu objektiboa.**

1. Bigarren apartatuan aipatzen diren entitateei ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaile guztiek sortu eta igorri dezakete faktura elektronikoa. Hornitzaile horiek behartuta egongo dira faktura elektronikoa erabiltzera eta hura dagokion sarrera-puntu orokorrean aurkeztera, entitate hauek direnean:

- a) Sozietate anonimoak;
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak;
- c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak;
- d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak;
- e) Aldi baterako enpresa elkarteak;
- f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

2. Dena den 5.000 euro arteko fakturak salbuetsita geratzen dira faktura elektronikoa erabiltzeko obligaziotik eta hura dagokion faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztetik, ondoko kasuetan izan ezik:

- a) Hornitzaileak edozein unetan behartuta badaude fakturaren bat formatu elektronikoa egitera aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoa gainditzeagatik, faktura elektronikoa erabili beharko dute, zenbatekoa edozein dela ere, hortik aurrerako ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan.
- b) Mankomunitateak kontratazio prozedurak bultzatu dituenean, Hirugarren apartuaren 1. paragrafoan aipatu diren hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta bidaltzeko obligazioa izango dute baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 euro baino handiagoa bada, kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa zeinahi dela ere.

**Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitzea.**

Debagoieneko Mankomunitatea atxiki egiten zaio 2014ko abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak jasotzen duen Foru Administrazioako faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari. Foru agindu horrek arautzen ditu faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan.

**Bosgarrena. Faktura elektronikoen eta haien sinadura elektronikoen formatua.**

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez bidaltzen diren faktura elektronikoa eta sinadura elektronikoa une oro Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako formatura egokitu beharko dira.

**Seigarrena. Fakturaren kontabilitate erregistroa kudeatzea.**

1. Debagoieneko Mankomunitatean, fakturen kontabilitate erregistroa kudeatzea Kontu-hartzailtza Zerbitzuari dagokio.

Erregistro hori kontabilitateko informazio sistemarekin lotuta edo bertan integratuta egongo da. Ondorio hauetarako, Mankomunitatean SAREKO aplikazioko fakturen erregistroa izango da aipatutako erregistroa.

2. Faktura jasotzen duen administrazio-erregistroak Kontu-hartzailtza Zerbitzura bidaliko du berehala, fakturen kontabilitate erregistroan haren oharra egin dezan.

Sarrera-puntu orokorrean aurkeztutako faktura elektronikoak elektronikoki bidaliko dira, puntu horretan izango den zerbitzu automatiko baten bitartez, kasuan-kasuan dagokien kontabilitate erregistroa, fakturan agertzen den kontabilitate bulegoaren arabera. Fakturan adierazi behar da zer administrazio-organori dagoen zuzenduta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu batekin, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

3. Fakturen kontabilitate erregistroan faktura baten oharra hartzeak berekin ekarriko du faktura hori identifikazio-kode bat esleitzea kontabilitate erregistroan. Faktura elektronikoen kasuan, kode hori faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari jakinaraziko zaio.

4. Kontu-hartzailtza Zerbitzuak dagokion organo eskudunari bidaliko dio faktura, ondasun edo zerbitzu emateari adostasuna emateko prozedura tramita dezan eta obligazioa onartzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerak egin ditzan.

5. Dagokion organo eskudunak obligazioa onartzen duenean, proposamenaren edota ordainketa-aginduaren tramitazio kontableak faktura (edo fakturak) identifikatuko ditu, fakturen kontabilitate erregistroan esleitutako identifikazio kodeen bidez.

**Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.**

Dekretu hau 2015eko urtarrilaren 15ean jarriko da indarrean.

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 15ean.

LEHENDAKARIA

Nere aurrean,  
IDAZKARIA